

Zangoza / 2026

KULTUR AGENDA

otsaila



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CONSEJO DE VALLESANTORO
PALACIO DE VALLESANTORO
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko eta Erakusketa aretoko ordutegia:

asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Urtarrilaren 1ean, 6an eta 20an Kultur Etxea itxita egonen da.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: otsailaren 3tik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Ikuskizunaren egunean online salmenta jarduera hasi baino bi ordu lehenago amaituko da. **Txartel-leihatila emanaldia hasi baino bost minutu lehenago itxiko da.**

Informazio-telefonoa: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatan antzezen egunetan: Karmengo Entzunaretoan (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik.

Telefonoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak.

Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko.

Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948 870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

KULTUR AGENDA

otsaila



1 Ig Erakusketa «Piztiak/Bestias» (otsailaren 1era bitarte) 4. Orr.

2 Al

3 As

4 Az

5 Og Erakusketa «Mari, lamiak eta basoaren aztarnak»

(martxoaren 1era bitarte)

4. Orr.

Musika Eskolaren kontzertua

9. Orr.

6 Os

7 La Musika bakarriketa. «El bar nuestro de cada día»

5. Orr.

8 Ig Euskarazko komedia. «Kaka»

9. Orr.

9 Al Musika Eskolaren kontzertua

9. Orr.

10 As

11 Az Ipuin kontalaria. «Cuentos de carnaval» (gaztelaniaz) 7. Orr.

12 Og

13 Os Inauteriak

8. Orr.

Historia tailerra. Liburuaren aurkezpena «Cuando

fuiimos vascones. Orígenes de Navarra»

10. Orr.

14 La Inauteriak

8. Orr.

Historia tailerra. Irteera eta bisita gidatua

10. Orr.

Historia tailerra. Jota zaharra ikasteko tailerra

10. Orr.

15 Ig Inauteriak

8. Orr.

Magia. «Las apariencias EnMagian»

6. Orr.

16 Al

17 As

18 Az

19 Og Ipuin kontalaria. «Ipuin Itzelak» (euskaraz)

7. Orr.

20 Os Musika. Andante Programa

6. Orr.

21 La Antzerkia. «Madres»

7. Orr.

22 Ig

23 Al

24 As Musika Eskolaren kontzertua

9. Orr.

25 Az

26 Og

27 Os

28 La

1 Ig Zinea. «Elio»

8. Orr.

Erakusketak



«PIZTIK/BESTIAS». Eskulturak Nafarroako Eskuahaldunak Elkarte

OTSAILAREN 1ERA BITARTE

«Piztiak/Bestias» hogei bat artista biltzen dituen erakusketa da eta irudimenezko izakien mundua aztertzen du. Eskulturaren bidez, animalietan inspiraturiko izaki fantastikoengana hurbiltzen dira, lurreko espirituak direnak. Baita animalia-erreinura eta fantasiara ere. Emaiza arteei betidanik lagundu dien imaginario kolektibo batean barrena egindako ibilbidea da.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



«MARI, LAMIAK ETA BASOAREN AZTARNAK». Argazkiak

JAIO LERTXUNDI

OTSAILAREN 5ETIK MARTXOAREN 1ERA

Erakusketa honek gizakiak izadiarekin eta euskal mitologiarekin duen harremana aztertzen du.

Instalazioak, artistaren beraren autorretratua (Zuhaitz-emakumea), arketiporik unibertsalena aipatzen du: Amalurra*, benetako guztiaren jatorrizko unitatea. Basoko ama elikatzaila eta umetokia, zuhaitz mitologiko baten forma hartzen duena eta erakusketa-espazio bakoitzera egokitzen dena fruitu berriak emateko. Amaia asiera da.* Pachamama (Inka); Gaia/Gea (Grezia); Ōno Mapu (Maputxea); Terra/Tellus Mater (Erroma) Pritiví (Hinduismoa/Budismoa).

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Erakusketa aretoko bisita-ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak eta musika

Karmengo Entzunaretoan



MUSIKA BAKARRIZKETA

«El bar nuestro de cada día»

CHIPI «LA CANALLA»

LARUNBATEAN, OTSAILAK 7

Zuzendaria: Antonio Romera 'Chipi'.

Interpretatzaileak: Zerbitzaria:

Antonio Romera 'Chipi'; Pianista eta eliz mutila: Javier Galiana de la Rosa; Musikaria-Saxoa: Bernardo Parrilla; Musikaria-Perkusioa: David León.

«El bar nuestro de cada día» umorezko bakarrizketa musikala da. Bertan, tabernak aisialdirako leku gisa ez ezik, bizitza eta geure burua gurtzeko tokizat ere aldarrikatzen dira.



Antzerkia taberna bihurtuta, Antonio Romera 'Chipi', «Egun hontako tabernako» zerbitzariak «Malandro» zenaren azken nahia bete behar izan du, beilatokiko hileta konbentzional bat baino tabernan jai ordaindu bat uztea nahiago izan zuen ohiko bezeroa. Chipik «Malandrorendako» zeremonia pagano bat inprobisatuko du, beilaldia, hildakoak eskatu bezalaxe, haren heriotza deitoratu beharrean haren bizitza ospatzeko festa bihurtuz.

Ikuskizunean zehar, anekdoten eta abestien artean, haren bizitza eta historia zerrendatuko digu, bere argiekin eta bere itzalekin, eguneroko jakituriaren ondarea, bizitzen ikasteko balioko duena.



2025EKO LORCA SARIAK: Antzerki ikuskizun onena/Musika egilea/Gizonezko antzezle onena. 2024KO SARIA Andaluziako Arte Eszenikoen Azokako ikuskizun onenari.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 19:30.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika

Karmengo Entzunaretoan



MAGIA

«Las apariencias EnMagian»

PEDRO III

IGANDEAN, OTSAILAK 15

Magia, umorea eta ilusio handien ikuskizuna. Pedro III.a ilusionistak agerian utziko du ez dela gauza bera errealitatea eta gure garunak berak interpretatzen duena. Horretan datza magia, gure zentzumenek «hautematen» dutenaren eta benetan gertatzen denaren arteko desberdintasunekin uneoro jolastea... Fantasia, ezustekoak eta dibertimendu handia. Hori guztia Magia Interaktiboaren, Magia Bisualaren eta Ilusio Handien efektuen konbinazio perfektuari esker. Gogoratu: «deus ez da dirudiena... eta deusek ez dirudi dena».

Ikusleak: Haurrak eta familiak. **Iraupena:** 75 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS)
Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



MUSIKA

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA.

Andante Programa

OSTIRALEAN, APIRILAK 20

Zuzendaria: Simon Schmied.

Txistularia: Garikoitz Mendizabal.

EGITARAUA: W.A. Mozarten obertura. Il re pastore, K208, David Johnstoneren txisturako sinfonia kontzertua (I. Otoitza – Atsekabea, II. Bakardadea (bilaketa), III. Askapena), J. Haydnen «Sorpresa» 94. sinfonia Sol Maiorrean (I. Adagio; Vivace assai, II. Andante, III. Menuetto: Allegro molto, IV. Allegro di molto).

Ikusleak: Gazteak eta helduak. **Iraupena:** 60 minutu.

Ordua: 19:30.

Sarreren aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Baluarte Fundazioa-Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak eta musika

Karmengo Entzunaretoan



ANTZERKIA

«**Madres**»

TXALO PRODUKZIOAK

LARUNBATEAN, OTSAILAK 21

Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi.

Antzezleak: Iraitz Lizarraga, Intza Alkain, Oihana Maritorena, Tania Fornieles.

«Amak» komedia desesperatua da, non bost emakume ikastetxe bateko itzarongelan giltzapetuta geratzen diren. Isolamendua muga susmagaitzen terapia batean amaituko da, amatasunaren itzalak eta argiak azaleratuz.

Ikusleak: Gazteak eta helduak. **Iraupena:** 80 minutu.

Ordua: 19:30. **Sarrerak:** 10 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Ipuin kontalaria



«**Cuentos de carnaval**»

(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

SERGIO SALINAS

ASTEAZKENEAN, OTSAILAK 11

Inauterietako pertsonaiak karriketara eta plazetara atera egin dira. Ospatu lurra eta bihotza esnatzen dituen festa.



«**Ipuin Itzelak**»

(Euskarazko ipuin kontalaria)

SERGIO DE ANDRÉS

OSTEGUNEAN, OTSAILAK 19

Ipuin hauek ez dira nire mailetan sartzen, beraz, zeruan zehar zuen belarrietaraino bidaiatuko dute.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Sarrera doan edukiera bete arte.

Ordua: 18:30. **Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Inauteriak



OTSAILAK 13, OSTIRALA

11.15etan: Luis Gil Ikastetxe Publikoko haurren inauterietako kalejira eta jaia hiriko karriketatik

12:00etan: Zangozako Ikastolako ikasleen Inauteri Kalejira. Aurten, gai nagusia "Historiaren ardatz kronologikoa" izanen da.



OTSAILAK 14, LARUNBATA

18:00etan: Txokolate jatea Arkupeetan.

18:30etik 20:30era: Disko TK Music saio familiarra.

23:00etatik 01:30era: Disko TK Music Saioa.

OTSAILAK 15, IGANDEA

18:00etan: «Las apariencias enMagian» Pedro III.rekin Karmengo Entzunaretoan.

Zinea



«Elio»

IGANDEAN, MARTXOAK 1

Zuzendariak: Madeline Sharafian, Domee Shi eta Adrián Molina.

Elioren istorioa kontatzen du. 11 urteko mutikoa, irudimen handia nahiz estralurtarrekiko obsesio ikaragarria duena. Gizartearekin bat egiteko borrokatzen da, harik eta tupustean espaziora eraman eta Lurreko enbaxadore galaktiko gisa identifikatzen duten arte.

Ikusle guztiendako.

Iraupena: 98 minutu.

Ordua: 18:00.

Sarrerak: 3 €.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako ikasleen kontzertuak

OTSAILAK 5, OSTEGUNA

OTSAILAK 9, ASTELEHENA

OTSAILAK 24, ASTEARTEA.

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Beste erakunde kultural batzuen jarduerak



EUSKARAZKO KOMEDIA

“Kaka”

IGANDEAN, OTSAILAK 8

Antzezleak: Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabala.

Euskal kulturaren agertokian gorozki bat agertu da. Kaka azaleratu da eta egoera aztertu behar da. Nork egin du? noiztik dago hor? zer irudikatzen du? eta orain, zer egin kaka-mokordo horrekin? noren ardura da? nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? nork garbitu behar du?

Kakak kaka dakar, eta pentsatzen jarrita... Mundua nolakoa litzateke, bakoitzak bere kakaren ardura hartuko balu? KAKA festa bat da, non, kolektibo eta gizarte gisa batzen gaituen arren, ezkutatu ohi dugun guztia erakusten den.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Publiko orokorraren sarrerak: 8 €.

Korrika laguntzaileenak: 6 €
(sartzerakoan erakutsi behar da).

Lekua: Karmengo Entzunaretoa

Antolatzaileak: Korrika – Zangozaldeko AEK.



Beste erakunde kultural batzuen jarduerak

HISTORIA TAILERRA

Tailerrak historia tradizionaleko datuei, datei, batailei eta heroiei testuingurua eta perspektiba eman nahi die, interesa duten pertsonen parte-hartze anitzarekin, historialari eta ikertzaileekin batera. Tailerrak lau saio bikoitz izanen ditu: ostiralean, saio teorikoa eta larunbatean, saio praktikoa 2026ko otsaila eta maiatz bitartean.



OSTIRALEAN OTSAILAK 13

«**Cuando fuimos vascos. Orígenes de Navarra**».
LIBURUAREN AURKEZPENA

Egilea: Javier Enériz Olaechea.

Liburu honekin, Javier Enerizek Nafarroaren identitate kolektiboaren hastapenetan sartzeko gonbita egiten du.

Ordua: 19:00.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoa.



LARUNBATEAN OTSAILAK 14

«**Camino de Santiago, patrimonio y naturaleza de Rocafort**»

Irteera San Migel ermitara, Jasokundeko Andre Maria elizara eta bisita gidatua Xabier Murelaga paleontologoaren eskutik Harriaren parkera.

Ordua eta irteera lekua: 10:00etan. Oinez Zangozako Santa María la Real elizatik.

Prezioak: 5 € pertsonako. Doan elkartekideendako.

Argibide eta izen-ematea:
asociacionbaskunsaelkartea@gmail.com



LARUNBATEAN OTSAILAK 14

Zangozako jota zaharra, hiriaren ondare materiagabea.

JOTA ZAHARRA IKASTEKO TAILERRA.

Ordua eta lekua: 18:00etan Rocamador Dantzari Taldearen lokalean (Azoka karrika z/g).

Prezioak: 5 € pertsonako. Doan elkartekideendako.

Argibide eta izen-ematea:
asociacionbaskunsaelkartea@gmail.com

Antolatzailea: Asociación Baskunsa Elkartea.

Laguntzailea: Grupo de Danzas Rocamador Dantzari taldea.